



Gizonekin sexu-harremanak ditugun gizon guztiak GIBaren bizikide gara.

GUTXI GORABEHERA 10ETIK 1EK GIBA DUGU

GIBagatik infektaturiko 3tik 1 ez dago diagnostikatua.

HITZ EGIN DEZAGUN GIBARI BURUZ

GIBagatiko infekzioak ez baitu sendabide ezta txertorik ere.

Medikazioa zorrozki eta betiko hartzeak bizi-kalitatea eta itxaropena hobetzen dituen arren, infekzioak beti ditu ondorio larriak osasunerako.

Espanian dagoeneko praktika homosexualengatik infektatzen garen gizonak, praktika heterosexualengatik infektatzen direnak baino gehiago baikara.

HITZ EGIN DEZAGUN PROBARI BURUZ

Arrisku-jarduerak izan badituzu ez itxaron, egizu proba. Zoaz zure osasun-zentrora, sexu-transmisioko infekzioen zentro batetara edo proba egiten duten GGKE batetara. Ez erabili odol-ematea GIBaren proba egiteko.

GIBaren probaren emaitza beti isilpekoa da eta toki batzuetan modu anonimoan egin daiteke.

HITZ EGIN DEZAGUN SEXUA EGIN AURRETIK ETA PROPOSATU DEZAGUN BERAU SEGURUA IZATEA



ZERTAN OINARRITZEN GARA KONDOIA ERABI- LI, EDO EZ ERABILTZE- KO?

Batzuetan erabiltzea, edo ez, itxura fisikoaren arabera, edo berarekin dugun konfiantza edo “kontu onaren” arabera erabakitzen dugu. Ez auresuposatu ezer.

Beharbada pentsatuko duzu: “berak ere ez du GIBa” eta besteak pentsatzea: “berak ere GIBa du” baina GIBa edo beste transmisio sexualeko infekziorik eduki daiteke eta ez jakin. Izan ere...

GIBAGATIK INFEKTATURIKO 3TIK 1 EZ DAGO DIAGNOSTIKA- TUA

NORBAITEKIN SEXUA
EGIN AURRETIK
ITUNDU DEZAGUN
KONDOIA ERABILTZEA.

HITZ EGIN DEZAGUN ARGI GURE BIKOTE EGONKORRA- REKIN

Probaren emaitza jakin arte gure artean kondoa erabiltzeak infektatzeko arriskua saihesten du.

ERRESPETA DITZAGUN
ZAINTEKO EZARRI-
TAKO AKORDIOAK.

BIKOTE IREKIAK

Gure osasuna eta gure bikotea-rena arriskuan jar ditzakegu harreman honetatik kanpo kondoa erabiltzea adosten badugu eta ez badugu betetzen.

HITZ EGIN
DEZAGUN BABESTEKO.



BIKOTE ITXIAK

Beharbada bikotetik kanpo harreman sexualak ez edukitzea adostu dugu. Baina gertatzen badira eta berauetan kondoa ez badugu erabiltzen, hitz egin dezagun gure bikotearekin eta neurriak har ditzagun infekzio bat baztertu arte.



GIBAK EZ BADU DISKRIMINATZEN, EZ DEZAGUN GUK EGIN

GUZTIOK KONPARTITZEN DUGU GURE BIZITZA GIBA DUTEN PERTSONEKIN, ESATEN DIGUTEN ALA EZ. LAGUNAK, LAN EDO FESTAKIDEAK, GURE BIKOTEA EDO SEXUA DUGUN BESTEGIZONAK IZAN DAITEZKE...



BATZUEK EZ DAKITE GIBA DUTELA, BESTE BATZUK BADA KIGU BAINA BELDUR GARA BAZTERTUAK IZATERA ESATEN BADUGU. GUZTIOK, GIB POSITIBOOK EDO EZ, SEXUALITATE BETE BATEZ GOZATZEKO ESKUBIDEA DUGU.

ERABILI BETI LUBRIFIKATZAILA DUEN KONDOIA UZKI-KOITORAKO ETA SAIHESTU EIAKULAZIOA AHOAN.

GIBAK
GUZTIOI
ERASATEN
DIGU

EGIZU PROBA GUTXIENEZ URTEAN BEHIN

GIBa baduzu ahalik eta azkarren jakin lehenago hartu ahal izango dituzu neurriak zure osasuna kontrolpean izateko.

INFORMA ZAITEZ:

900ROSA
900 601 601
CRUZ ROJA
900 111 000



www.mspsi.gob.es